

Tokiko historiaren Garrantziaz

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

Garai guztietan, gure arbasoen bizimoduaz edo izaeraz nolabaiteko jakin mina ausnartu da. Historia gizakien eguneroko bizibidean erreferente nahietazkoa bihurturik da eta edonork gure lehenaz inoiz kezka bizia somatu du eta nolabaiteko diskurtsua buruturik du ere bai.

Egunean eguneko gizartearen moldaketa kulturaleran sozial politiko edo ekonomikoan, handik edo hemendik beti agiri da gure iraganaz uste bat eta sarritan tradizioa eta ohitura oinarri oinarrizko printzipio eta abiapuntutzat jartzen da projektu alternatiboen artean. Hau da, beste era batera esanda, denbora iraganaren ikuspekiek gure gizarteaz ditugun eritzi eta ustetan eragin zuzena dute batzuetan konszientea besteetan ustegabekoa, baina intzidentzia duenik ukatu ezinekoa da.

Gaurko zibilizazioan denboraren dimentsio hori hiri handitan bereziki, izkuturik, bazterturik dagoela, iraganaren amnesia lantzen ari da. Berriz, gure ustez, gizarte zientzien abipuntu eta errealitate sozialaren arakatzearan arazo eta gauzen denboralitatearen azterketa izugarri lagungarria da. Horren barnean noski, denbora eta erritmo desberdinak bereiztu behar, garai bereborean erroturik egonik.

Historia eta kondairak egiteko moduak daude, historia mota asko dago eta historiak ikerlanak burutzeko ikuspegi desberdinak. Badaude egon epe luzeko egitura handien nundik norakoa lantzen dutenek eta mikrohistoria zehatzaz arduratzen direnak.

XIX mendean historiak kezkatzen zirenak, pertsona polifazetikoa izaten ziren, sarritan politikoak, lege gizonen heziketan heziak, eta historia ikertzen zen eguneko eztabaida sozial eta politikoak begibistan zi-

tuztelarik. Hau da, norberaren lejitimazio eta arrazoia aurkitzeko eta indartzeko bidetariko bat historian zehar zer gertatua zen argitzean zetzan. Garai honetan, tokiko historiak ere aro loratsu eta eder bat ezagutu zuen. Herrietako eruditoak, haundiki edo lanbide profesionaletakoak tokian tokiko pertsona eta gertakizunen kondairak kontatzen eta idazten hasi ziren. Batzuk argitaratu egin ziren, beste asko argitaragabe irauten dute. Kondaira hauek beste barik berez idatziak ez ziren, helburu jakin baten adierazpide erakusteko, lantzen ziren sarritan.

Geroago positibismoaren garaia zabaldu zen, hots, datu historiko zehatz eta zihurraren azalpenaren garaia nolabait historialari profesionalen agerkundearekin batera. Irakaskuntza zabaltzen ari zen heinean eta bigarren zein goi mailako irakaskuntz erakundeak sendotu, historiari irakaskintzan profesionalak zirenak alde batetik, eta bestetik artxibero eta bibliotekario profesionalak ere ugaltzen ari ziren garaian, historialari profesionalen garaia ireki zela esan dezakegu. Historialari neutroen premia zabaldu zen, gertakizun objektiboen aztertzaile, benetako historia zientifikoan iharduteko gai zirenen garaia.

Gaur egunean eritzi eta joera aniztasuna errealtate emankor bat dugu histori arloan baina gero eta gehiago mintzatzen da historiaren desprofesionalizatzeko baten premiaz. Hau da historiari ikerkuntzak egiteko modu jakin bat eskatzen da, ofizioa ikasi egin behar da, teoria eta metodologi gabe ez bait dago ezer zuzenik egiterik, baina ofizio hori ikastea ez da zaila, batez ere bigarren edo goi mailako ikasketak dituzten zat edo eta zaletasun bizia duenarentzat.

Euskal Herrian, tokiko historiari betidanik, nolabaiteko zaletasuna bizturik egon da eta burutu dira bai herri monografiak, onak eta ez hain onak. Oraindik ez daukagu egindakoaren balorapen historiografikoren bat eginik. Baina gaur egunean kezka berriei jabeturik galdera berriak ditugu gure iraganaz eta beraz erantzun egokiak bilatzen saiatu behar gara, historiagintza galderez eraikitzen den zientzia bait dugu. Galdera zehatzak, geure inguruneaz, ahozko zein idatzizko iturrietan erantzuna emateko.

Gure errealtatearen ezagutzak eta proiektu alternatiboen erai-kuntzak halabeharrez eskatzen digu iraganaren balorapen kritiko bat eta guzti hau, birjabetze sozial hau, ez da etortzen historialari profesional akademikoaren eskutik soil soilik. Tokian tokiko pertsonak ahalegindu eta saiatu behar dira informazioak biltzen, klasifikatzen, eta zabaltzen. Gogoetak burutzea ere berehala agiriko da premia premiazkaotzat, historiari gertakitzunak ulertzeko.

Sozializazio prozesuan lan egiten dutenek erantzunkizun gehigarria dute bere gain, hau da herri guztietan gizarte arloko irakasleak daude eta gizarte zientzian irakaskuntzan ingurunearen bilakaerak garrantzi

handiko azterketa bat eskatzen du, hezkuntzaren prozesuan. Nortzuk hauek baino hobe tokian tokiko historietan iharduteko? Baina ez bakarrik hauek, historia zaletasunak ez du mugarik. Tokiko historiaren eza-gutzak azkenik eguneroko errealitatea errelatibizatzen ere laguntzen digu eta gizakiaren poesian begi zabalez sakontzen, gure kultur maila goren gradura igotzen dugularik. Eusko Ikaskuntzak tokiko historien ikerketak bultzatu nahian, ikastaro bat antolatu zuen urte hasieran, ikerlari ofizioa erakusteko asmoz eta gaur egunean ere horretan dihardu. Etorkizunean tokiko historiaz ihardunaldiak antolatzeke asmoa dago.

Tokiko historien aldeko tradizioa ez da berbiztu hemen bakarrik. Aspaldian Ingalaterrako herrietan histori lan taldeak sortu zirela eta Katalunyako *L'Avenç* aldizkariak, hilerok *Plecs d'història local* argitaratzen hasi da aurten, Diputació de Barcelonak lagundurik.

Beraz bukatzeko, zeregin polit eta handi bat irekitzen zaigu geure mikrohistoriaren lantzean, eguneroko kezka sozial eta kulturalak politikoak eta ekonomikoak, asmoak eta usteak, dena, aztergai interesgarria dugularik.